



Eguraldi txarrari umore onarekin erantzun diote herritarrek. - Aurtengo Inauteriak ere bustiak izan dira gurean. Larunbatean euri zaparrada bortitzek goizean txupina karpan egitera behartu zuten Gazte Borraste konpainia eta arratsaldean berriz, desfilea laburtu egin behar izan zen argazkiak erakusten duen bezala euri-jasek ez zutelako etenik izan. Igande goizean ordea eguraldiak hobera egin zuen, baina arratsaldean berrito ere eguraldi kaskarra nagusitu zen Euskal Inauterietan. Alerata egoera ezarri zuten astebururako eta gurean arazoak sortu arren, kostan nabaritu zituzten gehienbat olatu handiek eragindako kalteak. Gaurtik aurrera berriz alerta gorria gaude eguraldi zakarra dela eta. Herritarrek hala ere, umore ona lagun azken hilabete eta asteotan prestatutako mozorro eta karroza doto-reak kalera ateratu zituzten asteburua kolorez eta musikaz blaitzeko.

2 GIZARTEA Emakumearen egunaren inguruan ekintzak herrian

Martxoaren 8an emakumearen nazioarteko eguna dela eta, hainbat ekintza egingo dira gurean. Aurten emakumeen zentroko batzorde sortu berriak adostu ditu udalarekin ekimenak eta antzezlanek gain, ohiko afaria eta abortuaren inguruko foro ireki bat izango da.

3 GIZARTEA Iñaki Balerdi eta Argi Iturraldi omenaldia

Juankar Balerdi presoaren anaia Iñaki eta ama, Argi Iturralde auto istripuz hil zirela hamaika urte bete direla gogoratu zuten herriko kaleetan ostiralean egindako manifestazioan. Presoen sakabanaketa politika salatu zuten EHBilduk Okendon egindako elkarretaratzeari.

5-13 INAUTERIAK Musika eta dantza nagusi herriko kaleetan

Herritarrek mozorroak jantzi eta kalera ateratu ziren asteburuan. Musika gai hartuta, larunbatean abeslari eta talde famatuak ikusi ziren herriko kaleetan. Igandean berriz, Euskal Inauterien txanda izan zen. Urteik urtera jendetsuagoak diren Inauteriei amaiera eman zitzaion hartza erretzean.



ASEGURUAK
Ges

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoa

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...

GIZARTEA

Martxoaren 8rako egitarau berezia

Bi antzezlan, ohiko elkarretaraztea, afaria eta abortuaren inguruko foroa dira ekintza nagusiak



Emakumeen Zentroan ostiraletan aurkeztu zuten emakumearen nazioarteko egunagatik antolatutako egitaraua.

Emakumearen Nazioarteko eguna ospatzeko ekintza egitarau berezia antolatuta du Emakumeen zentroak martxoaren 8tik 13ra. Ostiraletan aurkezpena Gorka Lizarraga zinegotziak eta zentroko ordezkariak azaldu zuten, aurten ekin-tzen antolatketan jardun da berriki sortutako erabiltzaileen batzordea. Lehengo aldiz ere egitarau honetan parte hartuko du Kukuka antzerki eta dantza eskolak formato txikiak antzerki batekin.

Gorka Lizarragak, Emakumeen zentroko langileek eta erabiltzaile zein antzerki taldeetako ordezkariak, aurkeztu zuten ostiraletan Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko eguna dela eta prestatutako ekintza egitaraua.

Honako Lizarragak azaldu bezala, adostua izan da zentroan duela gutxi sortu den batzordeagatik eta bestalde, "Kukukak bere oportunitate egin nahi izan du aurten lehenengoz. Garrantzitsua iruditzen zaigu ere egitarauaren baruan, abortuaren legearen gaiari lekua egitea, pil-pilean daogoen gaia da eta honen inguruan foroa egingo da".

Emakumeen zentrotik, "egitaraua osatzeko garaian emakumeen eskubideak hartu nahi izan ditugu hizpide". Abortuaren legeari buruz gogoeta egiteko, martxoaren 6an foroa egingo da eta herritar ezberdinak gonbidatu dituztela azaldu zuten. Gai honen inguruan debate interesgarria piztea da helburua. 18:30ean izango da Villa Mirentxuko hitzaldi aretoa.

Martxoaren 7an Lan eta Lan antzerki taldeak "Cinco mujeres con el mismo vestido" antzezlan egingo du Manuel Lekuona 19:30ean.

Ostean, 21:30ean Goiegien egingo da urteroko afari irekia, 22 euro balio ditu

menuak eta izena emateko azken eguna asteazkena, martxoak 5 izango da. Telefonoz zein zentroan izena eman daiteke honetan parte hartuko.

Lan eta Lan taldeko kideek esan zuten, antzezlanak omenahala eta daten duten neurrian, kontatzen dituzten gauez eragingo dute irribarra.

Aldarrikapena

Martxoaren 4ean 15:00etan zentroan elkarretarazterako pankartak egiteko hitzordua egin dute eta honetan lelo ezberdinak egingo direla aurreratu zuten.

Martxoaren 8an, larunbatean beriz, 12:00etan izango da elkarretaraztea Okendo plazan "emakumeen eskubideen alde" lemapean.

Manuel Lekuona egun horretan bertan, "Beguiratu eta ikusi ez" antzezlan egingo

du kafetegian 20:00etan Kukukak. Herriko antzerki eta dantza eskolako Maider Oiarzabal eta Kontxu lartzak agerraldian adierazi zuten, "beti izan dugun gogoeta emakumearen inguruan zerbait berezia egiteko baina aurten gauzatu da lehenengo aldiz".

Formato txikiok lan bat prestatu dute, adin ezberdinetako emakumeek egindako irakurketak izango dira. Areatorako lanak prestatzeko ohitura horretatik atera eta gauza berriak sortzeko beharra ikusi dutela kontatu zuten, "horrengatik kultur-etxeko kafetegian egitearena".

Egitaraua itxeko, martxoaren 13an bideoforuma egingo da emakumeen zentroan 18:30ean. "Alardearen seme-alabak" dokumentala ikusi eta solasaldia egiteko aukera izango da Jone Karres zuzendariarekin.

Agerraldian, herritarrek eta batez ere, emakumeak ekintza hauetan parte hartzera deitu nahi izan zituzten.

GIZARTEA

Bazkaria Xirimirin

Martxoaren 8a Nazioarteko emakumearen egunaren inguruan herria antolatuta diren ekimenen artean, Xirimiri elkar-tan 14:00etan bazkaria anto-latu du emakume talde batek. Bazkalondoa giroetako duten zenbait sorpresa prestatu dituzte elkar ezagutu eta haremanentzeko.

Martxoak 8 larunbate baino lehen Jalgi, Ilargi, Antizar edo Gure Etxea tabernetan tiketa eskuratu daiteke.

EUSKARA

Langabatuentzat euskara ikastaroak

Munteri-AEK euskaltegiak Udalaren laguntzaz herriko langabatuentzako euskara ikastaro antolatuta du. Ikastaro trinkoa izango da martxoaren 17tik maiatzaren 13ra. Egunean 4 orduko saioak izango dira. Euskara maila ezagutzeko proba bat egingo da.

Ikastaroak 10 euro balio ditu. Izena eman edo informazio gehiagorako Munteri-AEK-ra gerturatu behar da. Inskripzioa egiteko azken eguna martxoaren 7a ostirala izango da.

IKASTAROA

Janari Manipulatuzaile ikastaro berria

Elkolab, S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Osasun sailarekin elkarlanean, janari-manipulatuzaile ikastaro berri bat emango du. Arrisku handiko elikagaiak erabiltzeko balioko da eta ostalaritzako sektoreari zuzendua da.

Ikastaroa martxoaren 6an, osteguna, 09:30etik 13:30era izango da Osean Zentroko bigarren solairuan daogoen erabilera antzerki aretoa.

Prezioa pertsonako 45 eurokoa da; langabatuentzat beriz, 35 euro (erregimen orokorrean dauden pertsonok hobariak izan ditzakeak). Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, deitu OMC 943 361 605 edo Elkolab, S.COOP. 943 533 303 telefonotara.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttatum Kultur Elkarte

Celtiko kalea 4

20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legeko gordailua:

55513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txinbarri

Eredakzioa:

Maider Azurmendi, Nerea

Ezgarre, Jon Altuna E.

txinbarri@txinbarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Arco

publizitatea@ttatum.com

administrazioa@ttatum.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,

Ane Labaka, Maitu Aruti,

Asier Odriozola, Jone M.

Hernandez, Oihana Salazar,

Pako Azpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Arnoz

Saharar herriarekin elkartasuna

Otsailaren 27an, osteguna Saharar errepublika aldarrikatu zeneko 38. urteurrena ospatu zen. Saharar herria Aljeriako kanpamenduan bizi da errefuxiatu moduan eta Marokok politika borritza du eremu okupatuetan.

Egoera salatu eta saharar herriari bere elkartasuna erakusteko Lasarte-Orian ostegunean bi ekintza burutu ziren.

Egun osoan zehar, Mendebaldeko Saharako bandera egon zen Udaletxeko balkoian.

Izan ere, otsaileko Udalbatzarrean Lasarte-Oriako Saharar herriaren lagunak taldearen eskaerari erantzunez batzarrak bandera jartzeko bere onespenera eman zuten aho batez.

Elkarretaratzea

Arratsaldean, berriz, Saharako Lagunak taldeak elkarretaratzea egiten zuen Okendon "Maroko Sahararik at Autodeterminazioa eta Independentzia" leloarekin.

Lasarte-Orian bizi diren sahararrek eta taldeak hainbat herritarren babesa izan zuen ekimenean.



Ostiral arratsaldean dozenaka herritarrek manifestazio isila egin zuten herriko kaleetan barrena.

Argi eta Iñaki oroitzuz



Saharar herriaren lagunek elkarretaratzea egin zuten ostegunean.

Argi eta Iñaki, Juankar Balerdiren senideak bisita egitera zihoazela istripuan zendu ziren. Ostiraletan hamaika urte bete ziren gertakaria jazo zela.

Lasarte-Oriako EHBilduk urteurren hori gogoratu eta eskualdako sakabanaketa salatzeko elkarretaratze deialdia egin zuen.

Udaletxe zaharrraren aurrean hainbat herritar bildu ziren "Giza eskubideak, Irtenbidea. Bakea. Sakaba-

naketa politikarekin amaitu" leloa zuen pankartarekin.

EHBilduk Lasarte-Orian 7 preso politiko daudela eta Iñon Fernandez Iradi eskualdako politikoa, pairatzen duen esklerosi anizkoitza dela eta, zigorraren suspentsio medikala eskatu dutela gogorarazi zuen.

Bizikidetz lanean pausok ematen ari dela eta biktima guztien errekonozimendua oinarritzeko dela adierazi zuen alderdiak.


Manifestazio isila

Bestalde, arratsaldean Oken-dotik aterata eta herriko kaleak zeharkatu zituen Argi eta Iñakiren omenezko eta sakabanaketaren aurkako manifestazioak. Argi eta Iñakiren argazki handi bana izan ziren manifestazioaren buru, atzetik "Argi eta Iñaki gogoan. Sakabanaketarekin amaitu!!" pankarta eta dozenaka herritar.

Ibilbide osoa isilean egin zuten manifestariak.

LUIS CAR

autobusak



- Españolko eta nazionalistako garrakoz-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak.
- 15 plaza mikrobusak.
- 55 plaza autokarrak.
- Elbarrierantz behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza I Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA

PILOTA.-

Udaberri txapelketa amaitu da Intzarentzat

Kadeteek 22-7 galdu dute Hernaniren aurkako partida erabakigarria

Azken momenturaino aukerak izan badituzte ere, Intzako kadeteek agur esan diote aurtengoz Udaberri txapelketari. Hernaniko bikoetaren aurrean amore eman behar izan dute, 22-7. Bestalde, Villabonako senior bikotea ez zen partida jokatzera azaldu, uko egin zion Lasarte-Oriara etortzeari. Beraz, norgehiagoka irabazi egin zuten lasarteoriatarrek jokatu aurretik.

Amerioa gehiago denean ezin izaten da ezertxo ere egin. Jagoba Mendizabal eta Jon Aranberri saiatu ziren, gogotik saiatu ere Xabat Pagola eta Alain Agirre hernaniarren jokari aurre egiten, baina ezin izan zuten partida irauli.

Hasiera-hasieratik hartu zuten aurrea hernaniarrek markagailuan, eta Mendizabal eta Aranberri herriarrek geroz eta urrengoa ikusten zuten Hernaniko bikotea.

Faborito ziren Pagola eta Agirre eta argi erakutsi zuten

gaur-gaurko gehiago direla. Alain Agirre aurrean fin ibili zen, tanto asko eginez eta ia batere ez galduta. Atzean berriz Pagola sendo, Mendizabal eta Aranberriek atzeko koadroetara botatzen zizkion pilota oro frontisera jasoz. Azken emaitza 22-7.

Orain Berria torneoa jokatuko dute datorren astetik aurrera eta herriarte txapelketarekin amaituko dute denboraldia.

Senioren kasuan, Villabonako bikotea ez zen aurkeztu eta ondorioz partida galdutuz



Hernaniko pilotariak Intzakoak baino hobekak izan ziren bai aurrean zein atzean azken emaitzak erakutsi bezala.

eman zieten. Orain gainontzeko partidetan izaten diren emaitzen zain geratuko da Intzako bikotea Udaberri txapelketan aurrera jarai-tzen duen edo ez jakiteko.

Solano eta Arteaga finaletan

Intzako Aritz Solano eta Adur Erostarbe Gipuzkoako trinke txapelketako finalen sartu ziren Hernaniko bikoteari 40-32 irabazi ostein.

Asier Arteagak berriz, Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu zuten finalurrekoa Miguel Soroaren Oroimenezkoan Erostarbe bikote zuela. 22-20 irabazi zieten Aguirre eta Ibarondori.

ATLETISMOA.-

Atleta gazteek bi domina gehiago Euskadiko txapelketetan

Euskadiko Jaurtiketa Luzetako txapelketa burutu zen otsailaren 23 eta 24ean Zorrotzan, Bizkaian. Bertan LOKEko atletak bi domina eskuratu zituzten jabolina jaurtiketan, bata zilarezkoa eta bestea brontzezkoa.

Amaia Harto gazteak, lortu zuen kadete mailako bigarren postua, 25,73 metro jaurtiz.

Brontzea berriz, Maider Rekondo jubenilak eskuratu zuen 35,22 metroko markarekin. Oskar Goikoetxea entrenatzaileak aitatu digunez, oso marka ona da Maiderekin



Maider Rekondo eta Amaia Harto lortutako dominekin. LOKEATLETISMO

egindakoa. Gainera, atleta gazteak bere marka pertsonala 5 metrotan hobetu zuela ere azpimarratu du.

Proba berean ere lehiatu zen Asier Eizagirre seniorra eta 5. postuan amaitu zuen lehia.

Zaragozan

Bestalde, taldeko Asier Olmos, Idoia Olasagasti, Maria Eugi, Eneritz Busto eta Oihana Igarritz Gipuzkoako selekzioarekin izan ziren kadete eta jubenilen Erkidego arteko txapelketan eta hirugarren postua eskuratu zuten.

Azpimarratzekoa da Eneritz Bustok hesi lasterketan lortutako bigarren postua eta 9,08 sg.-ko marka. Entrenatzaileak aitatu digunez, bere marka berdindu zuten.

Aste honetan Euskadiko kadete, jubenil eta junior txapelketa dute.

LABURRAK.-

Arruabarrena 7. Antzuolako 8 Miliak proban

Lasterketa ugari daude eta izan dira aste hauetan eta Lasarte-Oriako korrialariak ez dute hutsik egin.

Otsailaren 16an, Antzuolako 8 Miliak proba izan ze eta Iraitz Arruabarrena herriarrek zazpigarren postua eskuratu zuten.

Lasarteoriatarrek 1o. 9m. eta 40sg. behar izan zituen probako 13,830 km. egiteko.

Lehenago astein, berriz, Hernaniko Sagar Lasterra proban hainbat herriar izan ziren. 10 kilometroko proban azkarrena, Iñigo Valdivia izan zen, 35:37 denborarekin.

Bideo Lagunak
TIEN 21
Guztira enbustetarako aukerak

¡MUGITU!
PREZIOAK JAISTEN DITUGU
ERAKUSKETA ALDAKETAGATIK
DENA LIKIDATZEN DUGU



Inauteritan blai!

ELECTRICIDAD ARREGUI
www.electricidadarregui.com

ETORRI GURE ESKAINTZA BEREZIAK IKUSTERA!

TAE 0%

299€

479€

399€

469€

349€

479€

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361080 • Tel./ Faxa: 943 872521



Miel Otxin eta Zaldikoren bisita jaso dute Garaikoetxean.



Landaberrin Irlandako musika zelta izan zuten, alaitasunez saltoka eta dantzan aritu ziren.



Sasoetako lehen zikloko ikasleak zintzo-zintzo euren koreografia egiten.



20ko hamarkadako jantzi eta dantzak Landaberrin.

Ikastetxeak dantzan

Herriko gaztetxoek estreinatu zituzten aurtengo Inauteriak

Sasoeta-Zumaburu eta Landaberriko gaztetxoak izan ziren ostiral arratsaldean Inauteri festa estreinatu zutenak. Azken asteotan egindako lana pazartzeko aukera izan zuten ikastetxeetako gimnasioetan. Denetarik ikusteko aukera izan zen, Charlestonetik hasita, Olivia Newton John eta John Travoltaren Grease musikal ospetsuraino. Ondo baino hobeto pasa zuten gaztetxoek, irakasleek eta gurasoek herriko txiki-ien dantza eta koreografiekin.

Landaberriko Inauteriak

Landaberrin berriz, istorio moduko bat osatu zuten, narratzaileak ikasleak eurak zirela.

Historiaurretik hasi zuten bidea, trogloditen historiaurreko musika, Irlandako musika zelta alai, erromatarak, 20. hamarkadako Charleston jantzi berezi eta ezkontzak, Tolosako Inauterietan ikus daitezkeen antzeko txarangak, Grease pelikulako musikala, Bob Marley eta reggae kultura ikusteko aukera ere izan zen.

Gimnasioa goraino beteta egon zen, guraso asko argazki kamera eta bideokamera eskutan hartuta bertaratu ziren Landaberrira.

Garaikoetxeako Haur Hezkuntzako txikitxoek Euskal Inauteriak ospatu zituzten txantxo jantzi koloretsuak soinean zituztela. Nafarroako Inauterietako ohiko dantza tradizionalak dantzan eta kantatu zituzten urteroko legeari jarraiki, Zaldiko eta Ziripot lagun zituztela.

TXINTXARRI

Sasoetan pentagrama eta notez mozorrotu ziren lehen zikloko txiki-ienak, *Sonrisas y Lagrimas* edo Mary Popinsen doinuak ere dantza-tu zituzten, ikastetxe-ko gimnasioan bikain lerrotuta eta zintzo-zintzo irakasleek irakatsi zietenari jaramon eginez.

Bigarren ziklokoak emana-ldi ederra eskaini zuten, eskularu zuri eta guzti koreografia simple, baina deigarria osatzeko gai izan ziren musika klasikoak lagun.

Helduenak berriz, Grease pelikulako musikala ekarri zuten herrira. Sasoetako gimnasioa Olivia Newton John

eta John Travoltaz bete zen. Ilek gora jarri zituzten mutilek eta laruzko beltza estuak jantzi neskek. Beltza izan zen protagonista, ez bakarrik gaztetxo-oen emanaldian, baizik irakasle-oen soinean ere. Hezkuntzako murrizketak salatzen kamiseta beltza jantzi baitzuten guztiak.

Zumaburuko txiki-ienak samba daoinuak dantza-tu zituzten adina saikatu eta Carliños Brownen *Mariacaipirinha* doinuean arratsaldea giro onean pasatzeko aukera izan zuten.

Behin bakoitzak bere lanak eginda, Buruzperen esku-rik txokolatada zuten zain guzti-ek indarrak berreskuratzeko.






Egurditan ere irekita daukagu!





Carrefour
express

Juan XXIII.a plaza
Lasarte-Oria



Eskularru zuriak, laxoa eta pajarita jantzi zituzten bigarren zikloko ikasleek.



Olivia Newton John eta John Travoltaz josi zen Sasoetako gimnasioa.



Bob Marleyren reggaea eta Jamaikako koloreak Landaberrin.



Zumaburuko Sanba taldeak ederki astindu zituen gerriak Zumaburuko gimnasioan.



Zumaburuko haurrak Carlinhos Brownen doinuekin dantzatzten.



Urtero lez, txanbo jantzi koloretsuak eraman zituzten Garaikoetxeara.

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan ETORRI eta GALDETU

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria



Zaharabalo lagunak Michael Jackson eta Theodor abarri zuzenaren Okerdoan.



Larriaren kostak. Beldurik narrazioa oteatu zuten eta kalea bete baita zuzen larriarekin.

2014ko Inauteriak musikaren erritimora

Musikari eta musika estilo ezberdinen topaleku izan dira Okendo plaza eta inguruak

Larriaren bertan, gaitz-gaitzek koadrila eta nabaroko asko ateru ziren kalera artean prestatutako mazarroekin. Besteak beste, Michael Jackson eta "Thriller", endelakiboko seililarak, gospel barak, disco starak, Amores bihurtu izan zen eguraldia gertu! luzeagoan ere. Amorezko desfilen konparteek lanak izan zituzten eren larriekin herriko kaleak zeharrikatu, baina unere onat lagun, larri zuten.

TEXTUORIK
G arte Borriako kompainiak legokitu zate auzoan, eta txupitoa prestatu zuten Okendo plaza eta inguruak. Erak izan dira Okendoko konparteei laguntza eman zutenak. Lehenak bildak den indarrez aurreran. Txorriak txori labaroen kamari ataratu. Hartz gain, hartz disko konpainiak zirkulo hamakatuak prestatu zituzten. Txupitoa sevilimila gonaz eta gitaraz Okendo plaza eta inguruak zeharrikatu zituzten. Elkar konparteei zela, hartz



Habitak dabilo salatuaz eta soroen korongorak egiten zuzen, tartean herria. Daxok eta jalgonek.



Gazte Borriako gorpel konparteean egokituz zate auzoerriaren begira irakurri eta okupatu borriaz.

ADURIZ DE LASARTE S.A
Ondokia - Solomoa baratuturrian
Etxeko bortxoak
Txistorra
Tripatxak - Salbitxak
Basurde burua
Basuri patia

BERTAKO FABRIKAZIOA
Lodizaren kalea 3 - 20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

WWW.PELMA
Etern gure jaki goxoak probatzera
Olig. kalas 2 - Lasarte-Oria - Tel: 943 362768

ARROGA TRIBI SA
KRISTALDEGIA
Auzoerriaren artean, bertan kizketan
Auzoerriaren artean, bertan kizketan
Oria Herriak - Lasarte-Oria
943 361 63 65

Fernández
e h u n a k
Nahi edo behar zuzen aurkituko duzu gurean!
Kale Nagusia 2 - Tel.: 943 341607 - LASARTE-ORIA

aldaz
Kale Nagusia 11. Hileko abuztuaren
Programa: "Hiztearen artean"
943 366 377

aldaz
Kale Nagusia 11. Hileko abuztuaren
Programa: "Hiztearen artean"
943 366 377

PATXI LARRAÑAGA ANA IPARRAGUIRE MAROIA
Kale Nagusia 39
Tel.: 943 372658
Fax: 943 370737



Gau partean gazte-koadrilak elkartu ziren parranda koxkorra bota asmoz.



Dinbi Banda rock bandak dantzan jarri zuen Okendoko karpa larunbat arratsaldean. Hori festa giroa!



Abiba disko-jalok goizaldeko ordu txikitara arte luzatu zuen karpako festa.



Rockabillyek ere primeran pasa dute aurtengo Inauterietan.



I. URRUZOLA

ABOZTEGIA

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.

Oria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA





Balerdi Karategiak





LASARTE
Bale Nagusia, 36-38 - Tel. 943 33 43 83

Geluzki kalea, 19 - Tel. 943 37 65 85

Bale Nagusia, 50 - Tel. 943 36 36 71



LORRIETA
Idiazabal kalea, 77 - Tel. 943 08 81 69



DONOSTIA
Berringsharen, buzo nº 37 - Tel. 943 28 23 23





Euskal Inauterietako txantxoek dantzek girotu zuten igandea

Bart hartza erretzearekin batera bukatu ziren herriko Inauteriak

Igande goiza ateri esnatu zen eta Euskal Inauterietako desfilea herriko kaleetan barrena ikusteko aukera izan zen. Hamaitetako goxoarekin indarrak hartu eta karroza dotorearen aurretik dantzara ekin zioten haur zein helduk. Arratsaldean berriz ere desfilea egiteko aukera izan zen eta hartzaren erretzearekin batera herriko inauterietan amaiera eman zitzaion.

TXINTXARRI

Euskal Inauterietan hartu zuten lekukoa igandean. Goiza ateri egon zen eta desfilea egiteko aukera izan zuten euskal inauterietan egin nahi izan zuten herritarrek.

Okendo plazan eguerdian zen hitzordua eta bertara gerturatutakoek Patxi Larrañaga harategiko txistorra eta odolki pintxo goxoak dastatu ahal izan zituzten, nahi izan zuenak, Otegi sagardoarekin, indarrak hartzeko.

12:30ean hasita, herriko erdiguneko kaleetatik abiatu

ziren adin guztietako txantxoak dantzan. Geldialdia egin zuten kale Nagusian eta bertan hainbat dantza eskaini zituzten herritar askoren begiradapean.

Ikusleen artean dantza egitera animatu zenik ere egon zen. Txalo zaparradak jaso zituzten dantzariak eta Tajamarreko errotondatik behera kalejiran Okendorantz bueltatu ziren. Bertan azken dantzak eta kalejirarekin amaitu zuten goizeko saioa.

Aipagarria izan zen karroza, honetan iaz bezala, Euskal Herriko txoko ezberdinetako inauterietako

personeiak ikusi ahal izan ziren eta musikariak, Amalurreko gaztetxoak tartean, honen gainean egin zuten ibilbidea.

Hartza erretzea

Arratsaldean jarraipena eman zitzaion herriko Euskal Inauterietan bazkaltzeko osteratxo egin ostean.

Ohi bezala, hartzaren erre-tzea izan zen ilunabarreko protagonista nagusia. Aurretik ordea, hainbat dantza egin zituzten adin guztietako txantxoek.

Goizean baino jende gutxiago bildu zen Okendo plazan bazkalostean, baina arratsaldeak aurrera egin ahal geroz eta herritar gehiago hurbildu ziren enparantzako musika eta koloreak erakarrita.

Hartza preso hartu eta plazaren erdian erre egin zuten aurpegia estalita zute txantxoek, hurrengo urtera arte.



Hamaitetako egiteko aukera izan zen dantzan hasi baino lehen.



Okendon hasi eta plazan bukatu zen desfilea.

Maite B ETELU



- B** Gestoria
- B** Aholkularitza
- B** Inmobiliaria zerbitzuak
- B** Aseguruak
- B** Etxebizitza administrazioa



Aralar plaza 4 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117



Dantzan pertsonala ezberdinak ikusteko aukera izan zen.



Kale Nagusian gelditu zen desfilea bertan dantzak egiteko, ikusleek txalo zaparrada eskaini zieten dantzariari.



Adin ezberdinetako dantzariak atera ziren goizeko desfilean.



Amalur eskolako musikariek girotu zuten hamaiketako eta desfilea.



ABEND
KAFE-ANTZOKIA

EGUNEKO MENUA
DANTZA
BOKATAK
KONTZERTUAK

Gozalafaktiketa!

Pablo Mutiozabal 5 · Tel.: 943 372089
LASARTE-ORIA

SANCHO TABERNA

HITZARTUTAKO
 eta
TALDEENTZAKO
MENUAK

Kaxuela,
Pintxo eta
Morunoetan
espezializatua

Ogitartekoak
Pintxoak
Plater konbinatuak
Eguneko menua




Oriamendi enparantza 1 behea · Lasarte-Oria · Tel.: 943 372075



Pitxu eta konpainia salto eta jauzika aritu ziren igande arratsaldean, baita aurpegia estalita zuten txantxoak ere.

Hartzak dantzan egin zuen... Erre zuten arte.



Arratsaldean dantzan aritu ziren ausartek karrozan atera zuten talde-argazkia.

Behin hartza erreta, txantxoek kalejira egin zuten haren inguruan.

Inauterietako argazki eta irudi gehiago www.txintxarri.info orrialdean

Jalgi
KAFE-ANTZOKIA

GELTOKI KALEA 4 BEHEA
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024



— Agenda —

-Herriarren txokoa-

Martxoaren 6tik-Martxoaren 13ra



Emakumearen Nazioarteko Eguna

Gizarte Zerbitzuetako arloak Emakumeen zentroa eta herriko hainbat elkarterekin batera, emakumearen nazioarteko eguna ospatzeko aste beteko egitaraua osatu du. Foroa, antzerki emanaldiak eta bideoforu-

ma izango dira Manuel Lekuona, Villa Mirentxu edo Emakumeen zentroan. Emakumei zuzenduriko afari eta dantzaldia izango da martxoaren 7an eta martxoaren 8an, elkarretaratzea egingo da Okendon.

lagunak taldeko kideak. Osteen, afaria izango da.

OKENDO PLAZA

Larunbata 8, 12:00etan
Emakumearen nazioarteko egunean elkarretaratzea egingo da.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ilganda 09, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Rodencia y el diente de la princesa" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz
Ilganda 09, 19:30etan

Helduentzako zinea, atalean "Asier eta biok" filma ikusteko aukera izango da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Euskaraz.

Buruntz-Azpiren ehiza txapelketa

Buruntz-Azpi elkarteak martxoaren 9an txakurrarekin egiten den ehiza xeheko lehiaketa antolatuta du eta osteen, bazkaria. Izena ematea elkarrean egin behar da martxoaren 6a baino lehen. Ordainketa inskripzioarekin batera egingo da.

Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekainaren 8-an Durango eta Iruñea artean egingo duten giza katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosari nahiz baduzu, herriko taldeko kideak ostiraleko Okendo plazan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

"Ez zaitez lekukurik gabe geratu Euskal Herriaren historiako une garantzitsu eta berezi honetan, etorri bizkor!"

Megaba elkarte kide berrien bila

Lasarte-Oriako Megaba elkarteak jende gehiago behar du bere jarduna aurrera eramateko. Horregatik, herri-tarrak animatzen dituzte honetan parte hartzea.

Horretarako www.megaba.es weban formulario bat bete edota 649 513102 telefonora deitu behar da. Urteen 10 euroko kuota ordaintzen dute.

Zuen oharrak jarri, kekak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Lasarte-Oria

Emakumearen eguna

VILLA MIRENTXU
Osteguna 6, 18:30ean
Abortuaren legearen aurre-proiektuaren inguruan hiriat foroa.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 7, 19:30ean
Lan eta Lan taldearen "Cinco mujeres-

con el mismo vestido" antzerki amateuraz gozatzeko aukera izango da. Gaztelaniaz.

Larunbata 8, 20:00etan
Kukuka antzerki eta dantza eskolak "Begiratu eta ikusi ez!" antzerkia ikusi ahaliko da. Euskaraz.

SEMBLANTE ANDALUZ

Ostirala 7, 19:30ean
"Andaluces y Saharais" hitzaldia eskainiko du Yaiza Ruiz Sahar herriaren

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 7, 22:00etan
Albertuko-ren kontzertua entzuteko aukera.

Larunbata 8, 22:00etan
Hip hopaz gozatzeko "Old School All Stars" jaialdia.

Larunbata 8, 23:55etan
Somos fiesta! dj emanaldia izango da.

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 8, 00:00etan
Idoia Bediagaren kontzertuaz gozatzeko aukera. Sarrera, 5 euro.

EUROMIKEL S. L.

N-1 Ctra 443 km, 34 Polg.
20150 Villabona
Tel.: 943 360850
943 365404
boxes@euromikels.com
www.euromikels.com

Auto Mekanika BOXES

943 360850

Untxo KOTXEA, MOTO edo FURGONETARI
ERREBIDOA egiten nahi OLIOA aldatzen.
Zergatik hainbeste ordaindu ?
Hiru aukera dituzu :
zuk egiten duzu
zuk gureldn ikasiz
guk egiten dugu

**DEITU ETA ESKATU PREZIDAK
KONPROMEZURIK GABE.**

KANTAK KOROAK

AKTIBIZAZIOA

Kultur Erakundeak
Ttakan

amarauri

txintxarri



JOSE AIZPURUA UNANUE S.L.



eraikuntzak



- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak

Nagusia 14 behea atzekoaldea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373879 • Mobila: 620 800186


GAUR astelehena, martxoak 3,
 dendara **MOZORROTUTA**
 etortzen diren ume guztiei,
INAUTERITAKO GAILETA
 bat oparituko diegu.



REPOSTERIA FACIL PARA TODOS eko gaileta bereziarekin
www.facebook.com/reposteriafacilparatodos

Tel: 943 37 78 68
tienda@ventanasalcar.com
www.ventanasalcar.com
 Jarrutsu honet, www.facebook.com/VentanasAlcar

CONDUCENTE Plaza Drianendi, 2
DALTONIA Ibaizena, 4 ardatzian 5A
 20180 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa





IZARRA

BITXITEGIA

www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalen 19 • Tel.: 943 371364
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY AKA

